

## 14. COCA-COLAREN TALENTU GAZTEEN LEHIAKETA NARRAZIO LABURREN SARIA 2016-2017KO EDIZIOA

COCA-COLA IBERIAN PARTNERS, S.A.

---

Coca-Cola Iberian Partners, S.A.k (aurrerantzean CCIP), Euskaltzaindiaren lankidetzarekin, Coca-Colaren Talentu Gazteen Lehiaketa – Euskarazko Narrazio Laburren Sariaren deialdia egin du.

Lehiaketaren helburua idatzizko adierazpenaren eta irakurketaren garapena sustatzea da DBHko 2. mailako ikasleen artean, eta, horrekin batera, idazle bihurtzeko ametsa betetzeko ahaleginetan laguntzea ikasle horiei, estatuko lehiaketa garrantzitsuenen artean finkatu den literatura-lehiaketa honen bitartez.

Termino eta Baldintza hauek Lehiaketan parte hartzeko arauak ezartzen dituzte.

Lehiaketan parte-hartzeak termino eta baldintza horiek onartzea dakar berekin.

### PARTE-HARTZEAREN OINARRIAK

#### I. - BETEKIZUNAK

DBHko 2. maila egiten ari diren ikasleek parte hartu ahal izango dute, **betiere parte hartzeko ezarritako gehieneko adina -16 urte-** gainditzen ez badute, ikasketa horiek egiten ari diren eskola/institutuen bidez (aurrerantzean, Ikastetxea).

Parte hartu ahal izateko, Lehiaketaren aurretik ikasleek narrazio labur bat egin beharko dute, Lehiaketaren Termino eta Baldintza hauen arabera.

Lehiaketaren Termino eta Baldintzak [www.concursojovenestalentos.cocacola.es](http://www.concursojovenestalentos.cocacola.es) webgunean daude 2016ko urriaren 15etik aurrera.

#### II.- ESKOLAKO FASEA

- **CCIPrekin kontaktatzea**

- Lehiaketaren deialdia egin aurretik, CCIPk Ikastetxeekin kontaktatuko du, Lehiaketari buruzko informazioa emateko xedez.
- Lehiaketan parte hartu nahi duten baina CCIPk kontaktatu ez dituen Ikastetxeek Lehiaketaren materialak deskargatu ahal izango dituzte, askatasunez, webgunetik, edo CCIPri telefonoz edo postaz eskatuz (datuak eskuragarri daude lehiaketaren webguneko "kontaktuak" sailean: <http://concursojovenestalentos.cocacola.es/contacto>).

- **Ikastetxe bakoitza ordezkatzeko duten ikasleen aukeraketa**

Ikastetxe bakoitzeko, irakasleek DBHko 2. mailako gela bakoitzeko bi ikasle aukeratuko dituzte, beren irizpideen arabera, idatzizko proban parte hartzeko.

- Ikastetxe bakoitzak bere Sistema propioa antolatuko du Ikastetxea Lehiaketaren Probintzia Fasean ordezkatzeko duten **DBHko 2. mailako gela bakoitzeko bi ikasleak** aukeratzeko. Lehiaketaren Antolatzaileok gomendatzen dugu parte-hartzaileen aukeraketa modu adostuan egitea, irakasleen eta ikasleen artean, aurretik ezarritako irizpide objektiboetan oinarrituta.
- **2017ko otsailaren 20**ra arte, Ikastetxeek jakinaraziko dizkiote CCIPri eta/edo Lehiaketaz bere probintzian arduratzen den pertsonari, harremanetarako irakaslearen bidez eta **Izena Emateko Orria** erabiliz (ikus I. Eranskina), gela bakoitzak Idatzizko proban parte hartzeko izendatu dituen bi ikasleen izenak. Ikasle horiek 14 urtetik beherakoak izanez gero, beren gurasoen edo tutoreen berariazko eta idatzizko baimena izan beharko dute (ikus II. eranskina).

### III.- ERREDAKZIO FASEA (IDATZIZKO PROBA)

#### 1. IDATZIZKO PROBA

**2017ko martxoaren 10ean**, idatzizko proba egingo da Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñean. Proba horretara, Ikastetxe bakoitzak izendatutako ikasleak etorriko dira, Sektoreka sailkatuta\*.

*\* Sektoreak: Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako lurraldea 5 sektoretan banatuko da, parte-hartzaileek aukera gehiago izan ditzaten ikasle asko lehiatzen diren lekuetan.*

#### 2. IDATZIZKO PROBAREN ARAUAK

- Parte hartzen duten ikasle guztiek **behar den bezala identifikatuta** etorri beharko dute Idatzizko Probara, **beren NAN edo Familia Liburuarekin**.
- Ikastetxe bakoitzak izendatzen dituen ikasleak CCIPk adierazitako lekuan eta orduan aurkeztuko dira Idatzizko Proba egiteko. Proba horretako lana NARRAZIO bat egitea izango da.
- Narrazioa Lehiaketaren paper ofizial zenbakituan egin behar da. Orriak CCIPk banatuko ditu Probaren hasieran. Folio horiek zenbaki bana izango dute identifikazio gisa. Parte-hartzaile bakoitzak bi folioen burualdea beteko du bere datu pertsonalekin (izena, Ikastetxea, Posta Kodea, Probintzia, Sektorea eta Hiria) eta bere Probintziaren izena idatzizko du orrian horretarako dagoen espazioan.
- Gaia CCIPk proposatutako du, eta sekretuan gordeko da probaren egunera arte.
- Narrazio Probaren egunean egiteko, Lehiaketaren Antolatzaileek Proba honetarako espresuki ezarritako jarraibideen arabera jardungo dute ikasleek.
- Narrazioak gehienez bi folioko luzera izango du, bi aldeetatik idatzita, eta ezin izango da sinatu.
- Idatzizko probaren amaieran, Narrazioa entregatzen den unean, antolatzaileek narrazio bakoitzaren burualdea ebakiko dute, hau da, ikaslearen datu pertsonalak dituen zatia. Zati hori **CCIPko ordezkari baimendu batek gordeko du Lehiaketaren deialdia argitaratzen den arte**. Une horretan, Ikastetxe bakoitzeko narrazio guztiak Probintziako Epaimahaiari entregatuko zaizkio, honek ebaluatu ditzan, **autoreak identifikatzea ahalbidetzen duen erreferentziarik gabe**. Era horretan, antolatzaileek gordeko dute narrazioa jasotzen duen folio zatia (identifikazio zenbakiarekin), alde batetik, eta datu pertsonalei dagokien folio zatia bestetik, horren bidez lehiakideen anonimotua bermatzeko.

## IV.- LURRALDE FASEA

### 1. LURRALDE EPAIMAHAIA

- Sektore bakoitzak Lurralde Epaimahaiaren ebaluaziora aurkeztuko ditu bere parte-hartzaileak, eta honek 3 narrazio onenak aukeratuko ditu Sektore bakoitzean aurkeztu diren guztien artean. Horrenbestez, guztira 15 finalista egongo dira: 3 finalista sektore bakoitzetik, 5 sektore egonda.
- CCIPk Lurralde Epaimahaiaren erabakia jakinaraziko die Sektore bakoitzetik aukeratutako hiru ikasleen irakasleei, **2017ko maiatzean zehar**.
- Lurralde Epaimahaiaren partaideak kazetariak, irakasleak, literaturaren munduko ordezkariak eta kulturaren munduko beste pertsona ospetsu batzuk izango dira. Lurralde Epaimahaiak maiatzean, 5 sektoreetako (sektore bakoitzeko) finalisten sailkapena erabakiko du, eta horietako bakoitzari Brontze, Zilar edo Urre kalifikazioa emango dio, haien narrazioen kalitateaz egin duen balorazioaren arabera

### 2. SARIAK

Lurralde Epaimahaiak ezartzen duen sailkapenaren arabera, eman beharreko sariak hauek dira:

- **Urrezko Sariak:** 1) Coca-Cola domina.  
2) 250€ko tablet bat edo balio bereko saria  
3) Kirol Poltsa Coca-Colaren produktuekin. .  
4) 60€tan baloratutako esperientzia-pack bat, irakasle finalistarentzat.
- **Zilarrezko Sariak:** 1) Coca-Cola domina.  
2) 100€ko argazki-kamera bat edo balio bereko saria  
3) Kirol Poltsa Coca-Colaren produktuekin  
4) 60€tan baloratutako esperientzia-pack bat, irakasle finalistarentzat.
- **Brontzezko Sariak:** 1) Coca-Cola domina.  
2) 90 €ko MP4 aurikularrak edo balio bereko saria  
3) Kirol Poltsa Coca-Colaren produktuekin  
4) 60 €tan baloratutako esperientzia-pack bat, irakasle finalistarentzat.

Sarien banaketa 2017ko maiatzean edo ekainean izango da, CCIPk erabakitzen duen egunean, eta EAEn edo Nafarroan egingo da. Bertara deituko zaie 15 finalistei, eta sari multzoak emango zaizkie, aukeratuta egon diren kategoriaren arabera (Urrezkoa, Zilarrezkoa eta Brontzezkoa).

## **V.- AZKENEKO FASEA:**

### **1. PARTE-HARTZEA**

Bigarren Lurralde Epaimahaiaren Urrezko aipamena lortzen duten 5 finalistak –bat sektore bakoitzeko-lehiaketaren Azkeneko Fasera pasatuko dira.

### **2. AZKENEKO EPAIMAHAIA**

Euskal kulturaren pertsona esanguratsuak biltzen dituen Azkeneko Epaimahai batek Urrezko aipamena lortu duten 5 narrazioak aztertu eta kontsideratuko ditu, eta horien guztien artean bat aukeratuko du; narrazio hori Lehiaketaren Azkeneko Irabazletzat hartuko da, Azkeneko Epaimahaiak berak aurretik ezarri dituen irizpide objektiboak oinarritzat hartuta.

### **3. AZKENEKO SARIAK**

Azkeneko Saria CCIPk antolatutako ekitaldi batean emango zaio irabazleari.

5 finalisten artean, Lehiaketaren Azkeneko irabazlea aukeratuko da eta jardunaldi literario kulturantzun batera joatea jasoko du saritzat. Sari horrek eska dezake saritua espainiar lurraldeko beste hiri batera joatea; hori horrela izanez gero, bidaia horren gastu guztiak sariaren barnean sartuko dira.

Lehiaketaren Azkeneko Irabazlearen gurasoek eta/edo tutoreek ez badute baimentzen saria onartzea, onarpen horrek dakartzan ondorio guztiekin eta ondorengo VI. Atalean ezarritako eran, Azkeneko Saria bigarren finalistari esleituko litzaiotke, eta horrela jokatu litzateke, hurrenez hurren, Azkeneko Sari hori osorik onartzen den arte. Horren asmoa da saria ezein kasutan eman gabe ez geratzea.

## **VI. – LEHIAKETAREN ARAUAK**

1. DBHko 2. mailako ikasleak aurkezten dituzten Ikastetxeek, ikasle horiek 14 urtetik beherakoak badira Probaren egunean, ikasleen izena emateko orriarekin batera (ikus I. ERANSKINA) gurasoen edo tutoreen aldez aurretiko baimenak aurkeztu beharko dituzte (ikus II. ERANSKINA), behar den bezala sinatuta eta parte hartzen duen adingabearen NANaren edo Familia Liburuaren fotokopiarekin batera; halaber, Lehiaketaren Terminoa eta Baldintza hauen berri eman behar diete. Antolatzaileek ez dute ardurarik hartuko Idatzizko Probarako aukeratutako ikaslea/k ordezkatzeko duen/dituen Ikastetxeak arau hau betetzen ez badu.

2. **Lehiaketaren Epaimahai guztiek narrazioak ebaluatuko dituzte, irudimena, argumentua, koherentzia, osaera, aurkezpena eta zuzentasun gramatikala kontuan hartuta.** Epaimahaien erabakia apelaezina izango da.

3. **Lehiaketara aurkezteak** esan nahi du parte-hartzaile/ikastetxe/aita/ama edo tutore eta irakasle guztiek Lehiaketaren Terminoa eta Baldintza hauetan sartuta dauden arauak berez onartzen dituztela.

4. **Sariak ezin dira trukatu**, ez diruagatik ez beste ezein sarirengatik ere, eta haien entrega zergen alorrean ezarritakoaren mende egongo da.

5. CCIPk **erabakiko du non egingo den** Azkeneko Sariari dagokion **jardunaldi kulturantzuna**. Erabakiko ditu, halaber, jardunaldiaren alderdi guztiak, hala nola data, topaguneak, garraiabideak, zerbitzu gehigarriak eta abar. Irabazleak ezin izango du puntu horietako bat ere aldatu, hots, saria eskaintzen zaion moduan onartu beharko du.

6. CCIPk **jardunaldi literario kulturantzunaren edozein alderdi aldatzeko eskubidea izango du**, beti ere inguruabarrek aldaketa justifikatzen badute eta irabazlearen segurtasuna bermatzen bada; bestalde, ez du inolako erantzukizunik hartuko greba, gerra edo porrotik gertatuz gero, edo garraiorako kontratatutako enpresak ezin baditu bere betebeharrak bete, sariari dagokionez, sariaren eraginez irabazleak nonbaitera bidaiatu behar badu.

7. Azkeneko Saria irabazten duen ikasleak **ezin izango du jardunaldi literario kulturantzunean parte hartu aita/ama edo tutorearen alde aurretik idatzizko baimena izan ezean. Azkeneko Saria irabazten duen ikaslea adingabea bada, jardunaldi literario kulturantzunean egoteko NANA edo indarrean dagoen pasaportea izan beharko du bidaiari hasteko unean**; halaber, bidaiatzeko baimena izan behar du, poliziak konpultsatua, ikasleak pasaporterik ez badu, eta espainiar lurraldean eta atzerrian estaldura duen osasun-txartela ere bai, hori guztia aipatutako jardunaldia espainiar lurraldetik kanpo egiten bada. Edozein kasutan, Azkeneko Saria irabazten duen ikaslea aipatutako jardunaldi kulturantzunaren Aurretiko Galara joango da, bere irakaslearekin edo aita-ama/tutorearekin batera.

Aurretiko Galaren biharamunean, ikasle irabazlearekin egon diren heldu arduradunak (irakasleak edo gurasoak/tutoreak) beren jatorriko hirietara itzuliko dira; ikasle irabazlea, berriz, bidaiaren baimenerako ezartzen diren kontsiderazioen mende geratuko da, honi atxikitako **IV. Eranskinean** azaltzen den bezala.

8. **Aita/ama edo tutore batek ez badu onartzen ikasle irabazleari esleitutako saria, sari horretaz gozatzea baimentzen ez badu** edo bere dokumentazioa indarrean ez badago, sari hori bigarren finalistari esleituko litzaioke, eta horrela jokatu litzateke, hurrenez hurren, Azkeneko Sari hori osorik onartzen den arte. Horren asmoa da saria ezein kasutan eman gabe ez geratzea.

9. Lehiaketan parte hartu baina lurralde fasean sailkatu ez diren narrazioak **beren autoreen esku utziko dira sei hilabetez, testuak berreskuratu ditzaten**, Lurralde Sariak eman direnetik **sei hilabetez pasatzen direnean**. Lehenengo sei hilabeteetan, lan horiek hedabideetan argitaratu ahal izango dira, edizio digitaletan edo ikus-entzunezko ekoizpenetan erabili edo liburu eta esku-orrietan argitaratu, Lehiaketaren material didaktiko bezala, edo Coca-Cola Iberian Partnersek egokitzen jotzen duen beste edozein xedetarako, kontuan hartuta testu horien erabilerak ez duela inoiz ere dirua irabazteko asmorik izango.

Goian aipatutako denbora-tarteak igarota, hau da, 6 hilabete + 6 hilabete, narrazioak jaso gabe geratzen badira eta "Lurralde Fasean sailkatu" ez badira, CCIPk suntsitu egingo ditu.

Dena dela, narrazioak "sailkatu badira Lurralde Fasean" eta autoreak ez baditu jaso 6 hilabete + 6 hilabete epean, botilaratze-enpresak 5 urtez gorde ahal izango ditu.

## 10. Datu Pertsonalak:

Sailkatzen diren eta irabazle gertatzen diren ikasleen, Ikastetxeak ordezkatzen dituzten irakasleen eta - hala dagokionean- haien lagun edo laguntzaileen (aurrerantzean, horiek guztiak "interesatuak" izenez identifikatuko dira) datu pertsonalen tratamendua Lehiaketaren Termino eta Baldintza hauetan azaldutakoaren arabera egingo da. Aurrekoarekin bat etorritik, Lehiaketan parte hartze soilak berekin dakar, nahitaez, interesatuek onartzen dutela beren datu pertsonalen tratamendua, Lehiaketaren Termino eta Baldintza hauetan deskribatutakoarekin bat etorritik.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorritik (DBLO), Coca-Cola Iberian Partners, S.A.k (aurrerantzean CCIP) –helbidea: Paseo de la Castellana, 259C, Torre Cristal, 9. Solairua, 28046 Madril- jakinarazten die interesatuei Lehiaketa honetan parte hartzeko ematen diren datu pertsonalak CCIPren ardurapean dagoen fitxategi batean gordeko direla, ondorengo termino eta baldintzen arabera.

**a. Interesatuena datuen tratamendu eta lagapenen xedeak**

Idatzizko Proban parte hartzen duten eta Lehiaketaren Faseren batean Irabazle gertatzen diren ikasleen datuak ondoren adierazitako xedeekin tratatuko ditu CCIPk. Xede horien zerrenda adierazpen izaera du, baina ez mugatzailea.

- Lehiaketan duten parte-hartzea kudeatzea, eta, irabazlea izanez gero, egiaztatzea interesatuak betetzen dituztela parte hartu ahal izateko ezarrita dauden betekizun eta baimenak.
- Interesatuari beharrezkoa den informazioa ematea, bere parte-hartzea bat etor dadin Lehiaketaren Termino eta Baldintza hauekin.
- Lehiaketa irabazten duten narrazioen autoreak identifikatzea.
- Irabazle izaera komunikatzea eta horri dagozkion sariak entregatzea.
- Lehiaketak izan dituen edizioetako ikasleak edozein unetan identifikatzea eta Lehiaketaren beste edizio batzuekin zerikusia duten ekitaldietara gonbidatzea, eta antzinako parte-hartzaile gisa aipatzea.

Ikastetxe bakoitzak Lurralde Fasearen Idatzizko Proban parte hartzeko aukeratzeko dituen ikasleek emandako datuei dagokienez, hau da, narrazioa idazteko erabiltzen diren folio ofizialen burualdean jartzen diren identifikazio-datuei dagokienez, CCIPk erabiliko ditu, Talentu Gazteen Coca-Cola Lehiaketa – Narrazio Laburren Saria garatzen eta kudeatzen laguntzen duen erakundea den aldetik, irabazleak identifikatzeko xede bakar eta eskusiboarekin; identifikazio hori folioetan ageri den identifikazio zenbakiaren bidez egiten da, horixe baita ikaslearen identifikazio bakarra, bere Probintziaren izenarekin batera –hori dagokion lekuan idatzi behar du Lehiaketaren orrian-. Datuak erabiliko dira, halaber, irabazle izaera eta eskuratutako saria ikasle irabazleei jakinarazteko, eta dagozkien Ikastetxeei ere bai. Idatzizko Proba gainditzen ez duten parte-hartzaileen datuak dituzten burualdeak CCIPk suntsituko ditu eta ez dira ezein zirkunstantzian tratatuko. Idatzizko Proban parte hartzeak esan nahi du parte-hartzaileak onartzen duela bere datu pertsonalen tratamendua, adierazitako terminoetan. Ikaslea 14 urtetik beherakoa bada, ulertuko da baimen hori gurasoek edo tutoreek emandakoa dela, Lehiaketan parte hartzeko baimena Ikastetxeari ematerakoan.

ONCE Erakundeari lotutako eta hezkuntza-behar bereziren bat duten lehiakideen datuei dagokienez, CCIPk ezinbestekoak diren osasun-datuak soilik tratatuko ditu, alegia, Talentu Gazteen Coca-Cola Lehiaketa – Narrazio Laburren Sarian gainerako parte-hartzaileen baldintza berdinetan parte hartzea ahalbidetzera zuzendutako neurriak hartzeko, sariak banatzeko eta –irabazle izanez gero- irabazleen bidaia eta ikastaroek modu egokian kudeatzeko eta antolatzeke beharrezkoak diren osasun-datuak. Idatzizko Proban parte hartzeak esan nahi du parte-hartzaileak onartzen duela bere datu pertsonalen tratamendua, adierazitako terminoetan. Ikaslea 14 urtetik beherakoa bada, ulertuko da baimen hori gurasoek edo tutoreek emandakoa dela, Lehiaketan parte hartzeko baimena Ikastetxeari ematerakoan.

Lehiaketaren Azkeneko Fasea irabazten duen ikaslearen datuak helburu hauekin tratatuko dira:

- Beharrezkoak diren baimenak existitzen ote diren egiaztatzeke.
- Jardunaldi literario kulturaztunaren eta interesatuaren egonaldien antolaketa kudeatzeko.
- Egokia denean, jardunaldien izen-ematea, bidaiak eta egonaldiak kudeatzeko, eta baita gainerako jarduerak eta Lehiaketaren irabazlea izateke ondorioztatzen diren gainerako helburuak ere kudeatzeko, Lehiaketaren Termino eta Baldintza hauekin ezarritakoaren arabera.

Ikastetxeetako ordezkarien datuak ondorengo xedeekin tratatuko ditu CCIPk. Xede horien zerrenda adierazpen izaera du, baina ez mugatzailea:

- Lehiaketarako izen-emate eta erregistroa kudeatzea; horretarako, gainera, interesatuak onartu beharko ditu pribatutasun politika eta CCIPren webgunean argitaratutako gainerako legeko testuak.
- Ordezkatzen dituen ikasleek Lehiaketan izango duten parte-hartzea kudeatzea eta horren garapen egokirako eta bertan parte hartzeko beharrezkoa den kontaktua mantentzea.

- Bere parte-hartzea Lehiaketaren arauen arabera izan dadin beharrezkoa den informazioa ematea interesatuari.
- Interesatuak ordezkatzeko duen ikaslea saritua izanez gero, bere datuak eta –hala dagokionean- bere laguntzailearen datuak helburu honekin bakarrik tratatuko dira: interesatuak gauzatu behar duen eta Talentu Gazteen Lehiaketaren saritzat hartzen den jardunaldia modu egokian kudeatzea.
- Lehiaketaren edizioetan Ikastetxeak ordezkatu dituzten pertsonak identifikatzea, edozein unetan, Lehiaketaren etorkizuneko edizioei buruzko eta berarekin zerikusia duten ekitaldi eta jardueren buruzko informazioa bidaltzeko, eta baita parte hartzera gonbidatzeko ere.

Halaber, jakinarazten da azkeneko irabazlearen datu pertsonalak laga ahal izango zaizkiela –adierazpen izaeraz, ez izaera mugatzailearekin- sariari dagozkion jardunaldi eta egonaldiak antolatzeke kontratatzen diren erakundeei, hala nola bidaia-agentziak, hotelak, hegazkin-konpainiak edo, oro har, garraio-konpainiak, mezularitza, aseguru-etxeak eta eskuratutako sariaren kudeaketan inplikaturako beste hirugarren erakunde batzuk. Gainera, lortutako saria baldin bada bidaiatzea eta ikasle irabazlearekin egotea, sorkuntza literarioko ikastaroan parte hartzen duen bitartean, beharrezkoak diren datuak jakinaraziko zaizkio ikastaroa emateaz arduratzen den erakundeari.

Deskribaturako lagapenei dagokienez, CCIPk jakinarazten dio interesatuari ezen, datuen hartzaileak Europar Esparru Ekonomikotik kanpo daudenean, aipaturako datuen komunikazioak datuen nazioarteko transferentzia dakarrela berekin, Lehiaketaren Termino eta Baldintza hauetan ezarritako baldintzak betearazteko. Orobat, haren datuak Ogasunari eman dakizkioke, egin behar litekeen zerga-atxikipena egiteko, eta baita Epaile, Auzitegi, kontsumo-elkarte edo CCIPek informazioa eman behar dion beste edozein hirugarreni ere, dela interesatuaren inpugnazioagatik dela CCIPk edo interesatuak berak egindako erreklamazioagatik.

## **b. Interesatuaren baimena bere datuen tratamendu eta lagapenerako**

Interesatuaren datu pertsonalen tratamenduaren edukiaren derrigorrezko izaeragatik, Lehiaketan izena emateak eta parte hartzeak esan nahi du, nahitaez, tratamenduarentzat adierazitako helburuak espresuki eta osorik onartzen direla, eta baita adierazitako datu lagapen guztiak ere. 14 urtetik beharakoei dagokienez, ulertuko da baimen hori espresuki eman dutela gurasoek edo tutoreek Lehiaketarako parte-hartzea ikastetxeari baimentzerakoan. Beraz, interesatuak edo bere gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariak ez badute datuen tratamendu eta/edo lagapenen bat onartzen, ikasleak uko egin beharko dio lehiaketa honetan parte hartzeari. Aurrekoa gorabehera, edozein unetan, interesatuak edo bere ordezkariak erabili ahal izango ditu datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien tratamenduaren aurka agertzeko eskubideak, Lehiaketaren Termino eta Baldintza hauetan adierazitako eran.

## **c. Datuak eguneratzea**

Interesatuari jakinarazten zaio ezen, CCIPri emandako datuen titularra den aldetik, datuen edozein aldaketaren berri eman behar diola lehenbailehen CCIPri, erakunde horrek eguneratu ahal ditzan. CCIPri besterik jakinarazi ezean, kontsideratuko da interesatuak emandako datuak zehatzak eta oraingoak direla.

## **d. Hirugarrenen datuak jakinaraztea, interesatuaren aldetik**

Interesatuak hirugarren pertsonen buruzko datu pertsonalak eman behar baditu, sariren batez gozatzean berarekin batera egongo den lagun edo laguntzaile gisa –irudiaren datua barne sartuta-, komunikazioa egin aurretik, komunikazio honetan aipatzen diren baldintzen berri eman beharko die hirugarren horiei eta, edozein kasutan, lagapenaren xedeen berri ere eman. Horretarako, hirugarrenen datu pertsonalen jakinarazpena behar eta proportzionaltasun printzipioaren baldintzapean egongo da, eta oraingoak eta egiazkoak diren datuak komunikatzeko beharrezko baldintzapean ere, eta beharrezkoa da hirugarren horien informazioa eta haien baimena eskatzea, datuen tratamendurako, horretara zuzendutako legezko habilitazioa egon ezean.

### **e. Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien tratamenduaren aurka azaltzeko eskubideak**

Parte hartzaileek edo haien legezko ordezkariak, irakasleek eta/edo ikastetxeen ordezkariak, haien lagun edo laguntzaileak eta beste edozein interesatuk datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien tratamenduaren aurka azaltzeko eskubideak erabil ditzakete, idazki bat eta NANaren bi aldeetako fotokopia bat helbide honetara bidaliz: Coca-Cola Iberian Partners, S.A., Paseo de la Castellana, 259C, Torre Cristal, 9 solairua, 28046 Madril.

#### **11. Irudi Eskubideak**

Idatzizko Proba egiten den bitartean, sariak emateko ekitaldietan eta Sariez gozatzeko aldian, Lehiaketaren Antolatzaileek irudiaren argazkiak eta/edo ikus-entzunezko grabazioak egin ahal izango dituzte; halaber, elkarrizketak egin ahal izango dituzte parte-hartzaile, irakasle eta –zenbait kasutan– senideekin. Horrez gain, hedabide nazionalak eta tokiko hedabideak gonbidatuko ditugu, eta, beraz, parte-hartzaileen eta/edo ikastetxeko ordezkarien izena eta abizenak eta haien irudia eta ahotsa argitaratu edo emititu ahal izango dituzte. Lehiaketan parte hartzeagatik eta/edo berari lotutako ekitaldietara etortzeagatik, parte-hartzaileek –haien guraso edo tutoreen baimen eta oniritziarekin–, irakasleek eta –hala dagokionean– senideek baimena ematen diote CCIPri eta/edo hedabideei beren izena, ahotsa eta irudia komunikazio-euskarrietan argitaratzeko, egunkariak, aldizkari literarioak, webgunean, informazio-orriak, sustapen-bideoak eta gisa berekoak barne sartuta, Lehiaketa sustatzeko eta bere garapenari buruz informatzeko xedez.

Halaber, irabazleen, ikastetxeetako ordezkarien eta –hala dagokionean– lagunen eta/edo senideen izena, abizenak, eskola eta hiriaren datuak argitaratu ahal izango dira bai Lehiaketaren webgunean eta bai beste edozein hedabide elektronikoko edo konbentzionaletan ere. Horri begira, irabazleek eta haien ordezkariak baimena ematen diote automatikoki CCIPri beren datu pertsonalak argitaratzeko, irudia barne sartuta, gainerako parte-hartzaileei eta publiko orokorrari jakinarazteko nortzuk izan diren ikasle irabazleak.

CCIPk jakinarazten die interesatuei datu pertsonalen tratamendu horrek ezinbestean eskatzen duela parte-hartzaileen, irabazleen eta haien ordezkarien datuak jakinaraztea interesatuen datuak erreproduzitu, argitaratu edo publikoki komunikatzen dizuten hedabide eta komunikazio-kanaletarako sarbidea duen edozein hirugarreni. Interesatuen datu pertsonalen erreproduzioa, komunikazio publikoa edo argitalpena munduko edozein herrialdeetatik irisgarri den hedabideetan egiten denean, hala nola Interneten, datuen tratamenduak izan dezakeen ondorio bat da datu pertsonalen babesari buruzko araudirik ez duten herrialdeetako hirugarrenek edo espainiar araudiak ematen duen babes mailaren azpiko maila duten herrialdeetakoek datuak eskuratu ahal izango dituztela.

Interesatuek Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar interesatuek berek edo haien gurasoek, tutorek edo legezko ordezkariak baimena ematen diotela CCIPri beren irudia hartzeko eta erreproduzitzeko, lehen adierazitako baldintzetan, eta baita irudi hori eta interesatuen datuak tratatzeko ere, klausula honetan aurreikusitakoaren arabera. Interesatuak ematen duen baimenari esker, CCIPk haren datu pertsonalak tratatu eta erabili ahal izango ditu, haren irudia barne sartuta, 1/1982 Legearekin bat etorritik, hedabide elektronikoetatik (Internet) eta/edo konbentzionaletik (papera, argazkiak, bideoak eta analogoak), jadanik existitzen diren edo ikerketa eta garapen fasean dauden ustiapen modalitate guztietan, legeak baimentzen duen gehieneko aldiaz eta munduko lurralde guztietarako.

12. Parte-hartzaileek Idatzizko Probaren egunean egiten dituzten narrazio guztiak autoreen esku egongo dira 6 hilabetez, haien berreskurapenerako, **sari probintzialak ematen direnetik** sei hilabete igaro direnean. CCIPk itzuliko ditu ikastetxeek eskatzen dituzten narrazioak, posta arruntez bidaliz.



6 hilabete + 6 hilabeteko epea igaro ondoren, sailkatu gabeko narrazioak erreklamatu ez badira, CCIPk suntsitu egingo ditu.

Probintzia Fasean sailkatutako narrazioak, berriz, bost urtez gorde ahal izango ditu CCIPk, 6 hilabeteko bigarren aldia amaitu eta gero.

13. Sor litezkeen gorabehera guztiak CCIPk bideratuko ditu.

**I. ERANSKINA****INSTITUZIOARI LOTUTAKO PARTE-HARTZAILEENTZAKO KLAUSULA ESPEZIFIKOA**

Hezkuntza-behar bereziren bat duten ikasleek baldintza berdinetan parte ahal izan dezaten, irisgarritasunerako beharrezkoak diren egokitzapenak eskainiko zaizkie horrelakoak behar dituztenei.

Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan, lana gainerako ikasleen baldintza berdinetan erredaktatu beharko dute, hots, ikasgelan eta idatziz. Horretarako, beren eskola-zereginetan erabiltzen dituzten irisgarritasun-egokitzapenak izango dituzte eskura. Orobat, ONCEk hartu du egindako lanaren transkripzio literala egiteko konpromisoa. Gainera, ikasleei beharrezkoa den denbora eman behar zaie, eta baita paper berezia eta orri gehiago eskuratzeko aukera, zeren braille sistemak eta tintaz erabili beharreko materialek hala eskatzen baitute.

Informazio zehatzagoa:

**[www.cocacola.es/concursojovenestalentos](http://www.cocacola.es/concursojovenestalentos)**

***THE COCA-COLA COMPANY-REN PRODUKTUAK ESPAINIAN ETA PORTUGALEN  
BOTILARATZEN DITUEN COCA-COLA IBERIAN PARTNERS, S.A. ENPRESAK ANTOLATUTAKO  
KULTUR JARDUERA***

Lehiaketaren Termino eta Baldintzak Notario aurrean gorde dira eta webgune honetan ikus daitezke:

**[www.cocacola.es/concursojovenestalentos](http://www.cocacola.es/concursojovenestalentos)**

**II. ERANSKINA****IZENA EMATEKO ORRIA****COCA-COLA IBERIAN PARTNERS, S.A.****14. Talentu Gazteen Coca-Cola Lehiaketa – Euskarazko Narrazio Laburren Sariaren Antolatzaileentzat**

Jaun/andre agungarriak.

**Talentu Gazteen Coca-Cola Lehiaketa – Narrazio Laburren Sariaren** 14. edizioa arautzen duten Termino eta Baldintzekin bat etorritik, jakinarazten dizuegu Ikastetxe honek behean identifikatutako ikasleak aukeratu dituela Ikastetxea **2017ko martxoaren 10an** egingo den Idatzizko Proban ordezkatzeko.

Honen bitartez, berresten dizuegu bi adingabeen gurasoek/tutoreek berriazko baimena eman dutela beren seme/alabak Lehiaketa horretan parte har dezan; halaber, berriazko baimena eman diote CCIPri beren seme/alaba adingabearen datu pertsonalak komunikatzeko eta tratatzeko, Lehiaketan parte hartu ahal izan dezan eta, hala dagokionean, irabaz litzakeen sariez gozatzeko, Lehiaketaren Termino eta Baldintzetan eta OINARRIETAN ezarritakoarekin bat etorritik.

Jakinazten dizuegu, halaber, gurasoek baimena ematen diotela CCIPri, Sariak eman osteko lehenengo sei hilabeteetan, beren seme/alabak Lehiaketan parte hartzearen bidez egiten duen narrazioa argitaratzeko, bai hedabide informatiboetan eta bai edizio digitaletan eta ikus-entzunezko ekoizpenetan edo liburu eta esku-orrien argitalpenean, Lehiaketaren material didaktiko gisa, edo CCIPk egokitzat jotzen duen beste edozein helburutarako, kontuan hartuta testu horien erabilerak ez duela inoiz ere dirua irabazteko asmorik izango. Epe hori igarota, eta Oinarrietan ezarritakoarekin bat etorritik, jakinarazi zaie beren seme/alabaren narrazioaren itzulketara eskatu ahal izango dutela, sei hilabeteko epe barruan.

Adeitasunez,

**Irakaslearen Izena eta Abizenak:****Data:**

<b>IKASTETXEA</b>	
<b>HERRIA- SEKTOREA</b>	
<b>PARTE-HARTZAILEAREN IZENA</b>	
<b>PARTE-HARTZAILEAREN IZENA</b>	

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin (DBLO) bat etorritik, jakinarazten dizugu dokumentu honen bidez eskuratutako datuak Coca-Cola Iberian Partners S.A. –helbidea: Paseo de la Castellano 259C, Torre Cristal 9. Solairua, 28046 Madril- enpresaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko direla, Talentu Gazteen Coca-Cola Lehiaketa kudeatzeko eta ikasleen parte-hartzea edizio honetan kontrolatzeko.

Nahi izanez gero, datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien tratamenduaren aurka azaltzeko eskubideak erabil ditzakezu, lehen aipatutako helbidera idazki bat bidaliz, NANaren fotokopiarekin batera.

Irakasleen eta Lehiaketako parte-hartzaileen datuen pribatutasun politikari buruzko informazio gehiago jasotzeko, eta baita beraren garapenean edozein xehetasun ezagutzeko ere, Terminoak eta Baldintzak eta Oinarriak kontsulta ditzakezu [www.cocacola.es/concursojovenestalentos](http://www.cocacola.es/concursojovenestalentos) webgunean edo 902 39 89 25 telefonoan.

**III. ERANSKINA****14 URTEK BEHERAKO IKASLEEN PARTE-HARTZERAKO BAIMENA  
14. TALENTU GAZTEEN COCA-COLA LEHIAKETA – NARRAZIO LABURREN SARIA**

Behean sinatzen dutenek,

<b>IZENA ETA ABIZENAK:</b>	
<b>HELBIDEA:</b>	
<b>NAN:</b>	
<b>HARREMANETARAKO TELEFONOA:</b>	

**14. Talentu Gazteen Coca-Cola Lehiaketa – Narrazio Laburren Sarian** parte hartzen duen adingabearen guraso/tutore gisa – ikaslearen datuak jarraian ageri dira, eta berak ere sinatzen du dokumentu hau:-

<b>IZENA ETA ABIZENAK:</b>	
<b>NAN:</b>	
<b>IKASTETXEA:</b>	
<b>HIRIA:</b>	

**Adierazten dute:**

**Baimena ematen diotela** beren seme/alabari Lehiaketan parte hartzeko, haren **Termino eta Baldintza** guztiak ezagututa eta osorik onartuta; ezagutzen eta onartzen dituzte, halaber, haren hedakuntza-planak eta adingabearen parte-hartzerako baldintzak. Errepasatzeko interesik izanez gero, Termino eta Baldintza horiek ikusgai daude [www.cocacola.es/concursojovenestalentos](http://www.cocacola.es/concursojovenestalentos) webgunean, baina haien kopia ere eska daiteke 902 39 89 25 telefonora deituz edo mezu elektronikoko bat [notificaciones@cocacola.es](mailto:notificaciones@cocacola.es) helbidera bidaliz.

Espresuki **baimentzen diotela** CCIPri dokumentu honen bidez jasotako datu pertsonalen tratamendua, eta baita ordezkatzeko duen adingabearenak ere, Lehiaketan parte hartu ahal izan dezaten eta, hala dagokionean, irabaz litzakeen sariez gozatzeko, bai Lehiaketaren Termino eta Baldintzetan eta bai baimen honetan ageri den klausula informatiboan ezarritakoarekin bat etorritik.

**Baimena ematen diotela** CCIPri beren seme/alabak Lehiaketan parte hartzeagatik egiten duen narrazioa argitaratzeko, bai hedabide informatiboetan eta bai edizio digitaletan eta ikus-entzunezko ekoizpenetan edo liburu eta esku-orrien argitalpenean, Lehiaketaren material didaktiko gisa, edo CCIPk egokitzen jotzen duen beste edozein helburutarako, kontuan hartuta testu horien erabilerak ez duela inoiz ere dirua irabazteko asmorik izango.

Gurasoei **jakinarazten zaie** ezen, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin (DBLO) bat etorritik, dokumentu honen bidez jasotako datu pertsonalak CCIPren ardurapekoa den fitxategi batean sartuko direla, helburu honekin: Talentu Gazteen Lehiaketan parte hartzen duten ikasle adingabeek lehiaketan parte hartu eta –hala dagokionean- irabaz litzaketen sariez gozatu ahal izan dezaten beharrezkoak diren guraso-baimenen erregistro bat mantentzea. Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien tratamenduaren aurka azaltzeko eskubideak erabil ditzakezu, Coca-Cola Iberian Partners, S.A.ri idazki bat bidaliz, NANaren bi aldeetako fotokopia erantsiz, helbide honetara: Coca-Cola Iberian Partners, S.A., Paseo de la Castellana 259C, Torre Cristal, 9. Solairua, 28046 Madril, edo Datuen Babeserako Erregistro Orokorrean horren ordezkari ageri den helbidera.

Eta egokia den lekuan horrela egiaztatuta gera dadin, baimen hau eman du

\_\_\_\_\_ (a)n 201\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n.

**Sinatzailea.** \_\_\_\_\_ **jauna/andrea**  
(Adingabearen aita/ama/tutorea)  
NAN –fotokopia atxikita doa- \_\_\_\_\_

**Sinatzailea.** \_\_\_\_\_ **jauna/andrea**  
(Adingabearen aita/ama/tutorea)  
NAN –fotokopia atxikita doa- \_\_\_\_\_

**Sinatzailea.** \_\_\_\_\_ **jauna/andrea**  
(Adingabea)  
NAN –fotokopia atxikita doa \_\_\_\_\_

**IV. ERANSKINA****BIDAIATZEKO BAIMENA  
(Azkeneko Saria irabazten duen ikaslearentzat bakarrik)****14. TALENTU GAZTEEN COCA-COLA LEHIAKETA – EUSKARAZKO NARRAZIO LABURREN SARIA**

Behean sinatzen dutenek,

<b>IZENA ETA ABIZENAK:</b>	
<b>HELBIDEA:</b>	
<b>NAN:</b>	
<b>HARREMANETARAKO TELEFONOA:</b>	

**14. Talentu Gazteen Coca-Cola Lehiaketa – Euskarazko Narrazio Laburren Sarian** parte hartzen duen adingabearen guraso/tutore gisa –ikaslearen datuak jarraian ageri dira, eta berak ere sinatzen du dokumentu hau:-

<b>IZENA ETA ABIZENAK:</b>	
<b>NAN:</b>	
<b>IKASTETXEA:</b>	
<b>HIRIA:</b>	

**Adierazten dute:**

Agiri honen bidez, baimena ematen dut, aita-ama/tutore gisa, nire seme/alaba, Lehiaketa honetako Azkeneko Sariaren irabazle gisa, oraindik ere zehaztu gabe dagoen hiri batean egingo den jardunaldi literario kulturantzunera joan dadin. Jardunaldia espainiar lurraldearen barnean egingo da eta 5-10 egun bitarteko iraupena izango du. Horri begira, Lehiaketaren baldintzetan eskatutako dokumentazio osagarria gehitzen diot baimen honi, hor eskatzen den moduan, nire seme/alaba joan ahal izan dadin aipatutako jardunaldira.

Bereziki, baimena ematen dut nire seme/alaba Lehiaketaren antolakuntzaren mende geratu dadin jardunaldien Aurretiko Gala amaitu ondoren; izan ere, horren ostean, adingabearen gurasoak/tutoreek eta harekin doazen irakasleek beren hiritara itzuli beharko dute, eta adingabeak, berriz, jardunaldian parte hartzen geratuko dira.

Hala eta guztiz ere, nire seme/alabaren babes eta zaintzaren arduradun bakartzat hartzen dut nire burua, eta, beraz, nire ardurapean hartzen dut eragozte nire seme/alabak alkohola, tabakoa edo beste drogaren bat kontsumitzea, eta baita adingabearentzat gerta litezkeen edozein arrisku-egoera ere saihestea, dela berak jasandakoa dela berak zuzenean eragindakoa.

Aipatutako kalteen erantzule bakartzat hartzen dut nire burua eta erantzukizunik gabe uzten ditut Lehiaketaren Antolatzaileak, adingabearen zaintzari dagokionez.